

# **MUXIKAKO UDAL HILERRIETAKO ORDENANTZA**

## **HILERRIA ETA HILETA ZERBITZUAK**

### **I. TITULUA**

#### **XEDAPEN OROKORRAK**

##### **1. artikulua**

Muxika, Gorozika eta Ibarruriko elizateetako hilerriak Muxikako Udalaren titulartasuneko zerbitzu publikoa eta herri jabariko ondasunak dira.

### **II. TITULUA**

#### **FUNTZIONAMENDUA**

##### **2. artikulua**

Muxika, Gorozika eta Ibarruriko udal hilerriaren zerbitzuan, Udalak izango du zerbitzua zuzendu eta administratu eta hilerria zaindu eta mantentzeko eskuduntza, eguneko arauen arabera; udalek arauok bete eta garatu egin beharko dituzte, eta zehatz zaindu ere bai.

##### **3. artikulua**

Muxika, Gorozika eta Ibarruriko udal hilerriak administratzeko hilobi, nitxo eta panteoien jabetza eta erabileraren eta emakidari buruzko erregistro liburua izango da; bertan azalduko dira Udalak egiaztatutako emakidak, haien prezioak, noiz egin diren eta titularren izenak. Kronologikoki egingo da, egiten diren hilobiratzeak eta hobitik ateratzeak aparte idatziz.

Hortik aparte, fitxategi bat izango da; bertan, Muxika, Gorozika eta Ibarruriko udal hilerrietan dauden hilobi, nitxo eta panteoi guzti-guztiak agertuko dira,

baita orain arteko emakidak, transmisioak, titularrak eta emakidaren gainerako inguruabar fisiko eta juridikoak adieraziko dira ere.

Fitxategiaren osagarri gisa, lur-zati eta nitxoien plantako plano deskriptiboa egingo da, eta zenbakiak fitxen araberakoak izango dira.

### III. TITULUA

#### HILOBIRATZEEN SAILKAPENA

##### 4. artikulua

Muxika, Gorozika eta Ibarruriko elizateetako udal hilerriek honako instalazio hauek dituzte:

1. Panteoiak.
2. Mugagabeko emakideko nitxoak.
3. Aldi baterako lagatzen diren nitxoak.
4. Aldi baterako lagatzen diren lurpeko hilobiak.
5. Aldi baterako lagatzen diren hezurtegiak.

### IV. TITULUA

#### EMAKIDAK

##### 5. artikulua

Edozein eratako hilobiratzea egiteko lur-zatiak adjudikatzeak emakida administratibo izaera izango du, eta lehenengo, ordenantza honetako xedapenek, eta bigarren, instituzio horren arau orokorrek eraenduko dute.

##### 6. artikulua

Udalak egindako lur, hilobi eta nitxoien emakidak esklusiboki emandakotzat jotzen dira. Horren ondorioz, bai lurra bai gainean egingo diren eraikuntzak, ordenantza honek ezartzen dituen baldintzei lotuta egongo dira uneoro.

## 7. artikulua

1. Denboraz mugatuta dauden emakidak, bai panteoi edo mausoleoetarako lurrenak bai eraikitako hilobi edo nitxoetak, hilerria erabiltzen den denborarako emango dira; edozein arrazoiengatik hilerria itxiko balitz, lagapen-hartzaileak ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango, ezta eraikuntzengatik ere.
2. Gorpuen ehorzketarako diren aldi baterako nitxoek erabilera lagatzeko moduan egongo da gehienez hamabost urtez.
3. Gorpuzkiak birehorztekarako diren hezurtegien erabilera lagatzeko moduan egongo da gehienez laurogeita hogeita bost urtez.
4. Aldi baterako lagatzen diren nitxo edo hilobien kasuan, gorpu edo gorpuzkiak lekuz aldatu beharko balira, arrazoitutako beharengatik, Udalaren kontura egingo lirarteke, dekoratua legokeen bezala utziz, arkitektura arloko araudiarekin bat etorritz gero.

## 8. artikulua

1. Aldi baterako nitxoak gehienez hamabost urtez lagako dira, eta epea betetzean gorpuzkiak gutxitu eta hezurtegi arruntera eramango dira, lagapen-epea igaro ondorengo hiru hilabeteetan ez bada beste hilobi batera eramatea eskatzen; kasu horretan, zerbitzu horiek ematearren ordenantza honen eranskinean ezarritako tasak ordaindu beharko dira.
2. Aldi baterako hileta-eskubide epe bakoitza abenduaren 31n bukatzen da, beranduenez, lagatzen den egunetik kontatzen hasita.

## 9. artikulua

Ordenantza hau indarrean sartzen denetik aurrera ez da hilobiratzerik egingo lurpeko hilobietan.

## 10. artikulua

Honako hauek izango dute aldi baterako lagatzen diren nitxoetan hilobiratze eskubidea:

1. Udalerrian erroldatuta dauden pertsonak.
2. Udalerrian jaiotako pertsonak.
3. Udalerrian erroldatuta daudenen lehen graduako ahaideak.
4. 44. artikuluan deskribatu diren baserrietan erroldatuta dauden pertsonak, jaiotako pertsonak edo erroldatuta daudenen lehen graduako ahaideak.
5. Alkatetzaren dekretuaren bidez baimena dutenek, aldeztatik beren beregi eskaera egin ondoren.

## 11. artikulua

Hilobiratzeei hilerria esleitzeko, 10. artikuluan aipatutako pertsonak hiru elizate historikoetatik zeinetakoak diren hartuko da kontuan.

## 12. artikulua

1. Debekatuta dago panteoi edo mausoleoak, nitxoak alokatu edo saltzea.
2. Panteoietan zaharberritze edo eraberritze obrak egiteko barruko gorpuzkiak ateratzea ezinbestekoa denean, nitxoetan utzi ahal izango dira, ordenantza honen eranskinean agertzen diren tasak jasoz, gorpuzki kopurua mugagabea dela; kasu horietan hilerriko administratzaileak aukeratutako nitxoak beteko dira.

## 13. artikulua

1. Panteoi, mausoleo, nitxo eta eraikitako hilobiak erabiltzeko eskubidea duten titularrentzat derrigorrezkoa da higiena, apainketa eta mantentzea ziurtatzea.
2. Eraikuntza horiek zainduko ez balira, aurri-egoeran edo bertan behera utzitako moduan agertzeraino, eta ondorioz arriskua etorriko balitz edo itxura txarra emango balitz, Udalak eraitsi egin ditzake, edo hilobian dauden gauzak kendu, eta gorpuzkiak hezurtegi arruntera eraman, kalte-ordainik eskatu gabe. Aurri-egoeraren adierazpenak, dagokion administrazio espedientetik egina, panteoi, mausoleo, nitxo eta hilobiak erabiltzeko eskubidea ezeztatuko luke. Udalak urtero egiaztatuko du hilobi, panteoi eta abarren ikuskaketa eta azterketa, ordenantza hau betearazteko eta zein dauden bertan behera utzita jakiteko; kasu horretan, hilerrian eta «Bizkaiko Aldizkari Ofizial»ean argitaratutako iragarkien bidez, ustez eskubidea dutenei deituko zaie, eta

iragarri ostean erreklamaziorik ez badago, hilobiak, panteoiak eta abar Udalaren jabetzakoak izango dira.

3. Nitxoa bertan behera utzita dagoela uste izango da, hilerrian emandako zerbitzuengatik eta aprobetxamendu bereziengatik ordenantza honen eranskinean ordainarazteko ezarritako eskubideak eta tasak ordaintzen ez badira. Horretarako aldez aurretik zorpekoen ziurtagiria egin beharko da betearazpen-bidetik kobratzeko.

4. Aurri-egoeraren edo bertan behera utzi izanaren adierazpenarekin batera joango da hilobia erabiltzeko eskubidea galtzea, eskubide horrengatik eta eraikitakoarengatik ordainsari eta kalte-ordainik jaso gabe, eta Udala izango da hilobiaren jabe bertako gorpuzkiak eraman ostean.

## V. TITULUA

### EHORZTEA ETA HOBITIK ATERATZEA

#### 14. artikulua

Ehorzteko derrigorrez igarota egon beharko da hil ondorengo arauzko behaketa epea; heriotza justifikatzeko emango da hilobiratzeko agindua.

Hileta-zerbitzuko enpresak edo gorpua dakarren pertsonak, hilerriko administratzaileari legezko edo erregelamenduzko xedapenek eskatzen duten dokumentazioa emango dio, ehortzi nahi den pertsonari dagokiona, hain zuzen ere, ordenantza honen eranskinean azaltzen diren ordainarazteko moduko eskubide eta tasak ordaindu behar direlarik, eta hiletei buruzko hautamena ere bai.

Hilerriko administratzaileari eman beharreko zerbitzuez abisatuko zaio beharrezko aurrerapenaz.

#### 15. artikulua

Ezingo da nitxo, hilobi, panteoi edo mausoleoetan gorpurik sartu edo atera erabilera eskubidea duen titularrak sinatutako baimena aurkezten ez bada; hala ere, ez da baimenik beharko ehortzi beharreko gorpua titularrarena berarena denean.

## 16. artikulua

1. Panteoi edo mausoleoetan, bertan sartzen diren beste gorpu ehortzi daitezke, eta hilobiratze eskubidea duten jabeen eskuduntza izango da gorpuak zehaztugabeko epean uztea, gorpuzkiak gutxitzea panteoiko hezurtegian gordetzeko edo gorpuzkiak hobitik ateratzea arauzko baimenak lortu eta ordenantza honen eranskinean ezarritako eskubideak ordaindu eta gero. Erregelamenduzko xedapenak bete ondoren bakarrik baimenduko da panteoi edo mausoleoetan gorpua ehorztea.

2. Panteoi edo mausoleoan gorpua hilobiratu eta berehala, hilkutxa daukan apalari trenkada egingo zaio. Gorpuak hobiratzean eta hobitik ateratzean panteoiak, mausoleoak edo hilobiak kaltetuta suertatzen badira, ez da horren ardura hartuko.

3. Jabetzako edozein hilobitan egin beharreko lurperatzea titularrak beren beregi baimendu beharko du aurretiaz; gainera, horrek lagapen titulua emango du hilerriko administrazioan aurkezteko, dagozkion oharrak egiteko. Ez da baimenik behar izango hilobiratzea hilobi-eskubidearen titularrarena bada.

4. Hilobiratzea nitxoan egin behar bada, gorpua sartu ondoren bost zentimetroko espazio librea duen trenkada bikoitzarekin estaliko da, nitxoaren horma, lurzoru eta gangan erreten egokia eginez. Nitxoetan gorpuak eta gorpuzkiak sartu edo ateratzeko, erabilera eskubidea bermatzen duen titulua aurkeztu beharko da.

5. Debekatuta dago gorpuen deskonposaketa ekidin edo atzeratuko duen estalkirik jartzea.

## 17. artikulua

Hilerrian dauden hilobietatik gorpuak atera ahal izango dira, hilobiratu eta hamabost bost urtera eta hezurtegi arruntean utzi ahal izango dira aldeztu aurretik senitartekoei jakinarazita.

## 18. artikulua

Dagokion urtea bukatu baino hirurogei egun lehenago, bai nitxo bai aldi baterako lagatzen diren hilobien kasuan «Bizkaiko Aldizkari Ofizial»ean, herriko egunkarian/etan eta iragarki taulan emakiden iraungipen data argitaratuko da, hildakoaren senitartekoek edo interesatuek hilobiratzearen gorpuzkiak eska edo eduki ditzaten.

Epez kanpo egindako eskaerak ez aurkeztuztat joko dira eta ezingo da erreklamaziorik egin.

## 19. artikulua

Panteoi edo nitxoko apal bakoitzean gorpu bat bakarrik sartuko da, baldin eta ehortzi beharreko gorpuak ama eta erditzerakoan hildako umearenak ez badira.

## 20. artikulua

Hilerrira ehorzteko eramaten diren gorpu guztiak lurperatuko dira, beti ere legezko izapideak bete ondoren, ordenantza honen eranskinak ezarritako hilobiratze eskubideak ordaindu behar direlarik.

## VI. TITULUA

### ERAIKITZE ETA APAINITZE JARDUEREN ESKU-HARTZEA

## 21. artikulua

Panteoiek ezin izango dute hegada, apaingarri eta abarrekin bere jabetzako oinarriaren planoek adierazten duten baino leku gehiago hartu, eta ezingo dira erabili Udalak onartu baino lehen.

## 22. artikulua

Panteoi edo mausoleoak eraiki edo eraberritzeko Udalaren baimena beharko da. Interesatuak eskabidea aurkeztuko dute, eta horrekin batera memoriaren, planoen eta aurrekontuen hiru ale.

Ez dira memoria, planoak eta obren aurrekontua eskatuko, eraikuntza egokitu behar zaion proiektu eredu homologatu bada.

### 23. artikulua

1. Ezingo da inolako obrarik hasi Udalak onartu gabe eta dagozkion eskubideak bete direla arrazoitu gabe; horrezaz gain, ordenantza honek dioenaren arabera kitatu beharko dira.

2. Eraikuntza arloko arau-hausteak obren zati baten edo obra osoaren eraispenarekin zigortuko dira, emandako lizentziaren baldintzei lotzen ez bazaie.

### 24. artikulua

Ikuskaketa zorrotza egingo da nolako apaingarriak eta inskripzioak jartzen diren ikusteko, eta lekuarekin bat ez datorrena edo edozein erlijio edo ideia politikorentzat burla edo eraso suposatzen duen guztia erabat debekatuko dituzte.

### 25. artikulua

Edozein hilobitan jartzen diren hilarriek, gurutzeek, kateek eta hiletasinboloek dagokion baimena beharko dute.

## VII. TITULUA

### POLITIKA

### 26. artikulua

Inguru sakratuak merezi duen begirunearengatik, derrigorrezkoa izango da jendea ganoraz eta isilik ibiltzea, eta moralaren, ohitura onen eta sinismen desberdinen aurkako esaldi edo hitzak esatea debekatuta dago.

Era berean, debekatuta dago behar diren kale edo bideetatik ateratzea, baita lorategiak zapaltzea ere.

#### 27. artikulua

Debekatuta dago eskale edo saltzaileak egotea, baita janari eta edariak eramatea ere.

Ibilgailuak sartzeko Udalaren baimena beharko da.

#### 28. artikulua

Debekatuta dago edozein motatako gauzak saltzeko postuak jartzea ate nagusiaren pareko zabalgunean, baita hilerria inguratzen duen hormatik hogeita bost metroetara ere.

#### 29. artikulua

Debekatuta dago hilerriko langileek eta beste pertsona batzuek propaganda egitea zerbitzu batzuen alde edo pertsona edo entitate batek panteoia eraikitzearen alde. Era berean, debekatuta dago langileek dirua kobratzea euren karguari atxikitako lanengatik.

#### 30. artikulua

Udalak jarriko ditu urte sasoi bakoitzean hilerria zabaldu eta ixteko orduak.

#### 31. artikulua

Debekatuta dago harri blokeak moztu edo arbastatzea hilerriaren barruan; eta derrigorra balitz hori egitea, udal lurperatzaileak esango luke non egin eta non utzi materialak, eta orduan, interesatuak lekua erabat garbi utzi beharko luke.

## VIII. TITULUA

### BETEBEHAR ETA ESKUBIDEAK. ARDURAK

#### 37. artikulua

Udalak ordenantza honek hilobi, nitxo eta panteoien jabeei ezartzen dizkien betebeharrak betearazi ahal izateko, jabeek Udalarari euren helbideen berri eman beharko diote, baita euren ordezkariak nor diren ere, eskubide hau erabiltzeko asmoa badute.

#### 38. artikulua

Hobi, nitxo, hilobi edo panteoietan gerta daitezkeen lapurretak ez dira Udalaren ardura izango.

#### 39. artikulua

Aldi baterako lagatzen diren hilobietan jarritako hilarriak eta gainerakoak, baita hileta sinboloak ere, lagapen epea bukatu orduko kentzen ez badira, Udalaren esku geratuko dira; horrek erabilerarik egokiena eman ahal izango die, eta ez dago erreklamaziorik aurkezteko eskubiderik.

#### 40. artikulua

Edozein obra mota amaitu ostean, eraikitzaileek edo bestela emakidadunek lur, harri, obra-hondakin eta oro har erabilitako materialen hondarrak kendu beharko dituzte. Ibilgailuekin edo beste edozein elementurekin kale, lorategi, eraikuntza eta abarretan sortutako kalteak ere konpondu beharko dituzte.

## IX. TITULUA

### TASAK

#### 41. artikulua

Ordenantza honetan araututako ekintzak Udalak onartzen dituen tasei lotuta daude.

#### 42. artikulua

Eskaleen gorpuen garraioa eta ehorzketa Udalaren kontura eta pentzura egingo dira, inguruabar hori frogatzen bada, hilkutxa Lurralde edo Udal Korporazioek edo Onura Publikoko Entitateek dohain ematen badute, eta lurperatzea aldi baterako lagatzen diren hilobietan egiten bada.

#### 43. artikulua

Hurrengo kasuetan, tasak ordaintzetik salbuetsita egongo dira hamabost urteko edo gehiagoko antzinasuna duten hilobiratzeak hobitik ateratzeak eta ehorztek: Udalerrian erroldatuta dauden pertsonak.

#### 44. artikulua

Muxika udalerrriaren mugakide diren baserri batzuk, nahiz eta juridikoki ez diren Muxikakoak, eklesiastikoki Muxika osatzen duten elizateetakoak dira, eta baserri horietako bizilagunak Muxikako hilerrietan hilobiratu izan dituzte beti.

Baserri horietan bizi direnak Muxikako elizateetako erregistro eklesiastikoetan agertzen dira.

## ERABAKI GEHIGARRIA

Ordenantza honetan agertzen ez den guztirako, une bakoitzean Hildakoen Osasunari buruz indarrean dauden legeak xedatutakkoari jarraituko zaio.

## AZKEN ERABAKIA

Ordenantza hau behin betiko onetsi eta testu osoa “Bizkaiko Aldizkari Ofizialean” argitaratutakoan sartuko da indarrean.